



ZURE ETXEBIZITZA  
GURE KONPROMISOA  
TU VIVIENDA  
NUESTRO COMPROMISO

Herritarren partaidetza 2013-2016ko Etxebizitza Bideratzeko Plana  
prestatzeko prozesuan

**PARTE-HARTZEAREN GAINEKO MEMORIA**  
**Ekintzen laburpena**

2013ko azaroa

**2013-2016ko Etxebizitza Bideratzeko Plan berriak** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak esparru horretan egiten dituen jardunak antolatuko ditu legegintzaldi honetan. Izan ere, gaur egun bizi ditugun errealitate sozialarekin eta ekonomikoarekin lotuago dauden ekimenak eta ekintzak garatzea garrantzitsua dela jakinda, **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko Etxebizitza Sailburuordetzak herritarrek parte hartzeko prozesua hastea erabaki zuen, horrela plana aberastu egingo zelako.**

Etxebizitza Sailburuordetzak hauxe adierazi zuen: “pertsonek parte-hartzea ekimen publikoetan, interes sozial jakin batzuk dituztelako, kasu honetan gertatzen den bezala, eta etxebizitzaren gaineko politika publikoa ere erantzukizun partekatua izateko bide ematen duen esparru bateratzailea da. Prozesu soziala da, elkarren menpekotasuna, parte hartzea eta buruzagitza konpartitua eskubide moduan hartzea dakartzana, eta denek ekarpenaren bidez ideia bat, itxaropen bat, egia bihurtzen duena. Laburbilduz, gizarte zibilaren eguneroko beharrianak sentitzeko modua da eta banakoen ahaleginak bateratzen ditu denon onerako”.

Premisa hori kontuan hartuta, Etxebizitza Sailburuordetzak esperientzia paralelo baten bidez bultzatu nahi izan du Etxebizitza Bideratzeko Plan berria idazteko prozesua; **eztabaida bultzatu nahi izan du eta EAEko etxebizitza politikari lotutako ildo nagusiei egindako ekarpen guztiak bildu nahi izan ditu**, batez ere hartzaile gehienak biltzen dituzten bi kolektibotara bideratuta: herritarrak (bereziki, etxebizitza publikoa eskuratzeko asmoz Etxebiden izena emanda duten pertsonak), eta sektoreko eragile adituak.

**Herritarren parte-hartzea duten prozesuak onak eta erabilgarriak dira, baina aurrekontuak mugatuta dauden sasoi honetan are garrantzi handiagoa hartzen dute, inoiz baino garrantzitsuagoa baita erabilgarri dauden baliabide publikoak herritarren beharrianetara bideratuta daudela egiaztatzea.**

Parte-hartze prozesuak lau asteko iraupena izan du, eta hura gauzatzeko eta zabaltzeko Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren web euskarriak erabili dira funtsean.

Lortutako emaitzak onak izan dira, **parte-hartze handiari esker herritarrek ekarpen ugari egin dituztelako eta ekarpen horiek multzokatu eta aztertu ostean Etxebizitza Bideratzeko Plan berrian sartu direlako.**

### HELBURUAK

Etxebizitza Sailburuordetzak herritarrek parte hartzea eta gai hau eztabaidatzea nahi zuenez, horretara bideratutako prozesu bat prestatu zuen. Helburuak bi izan ziren:

- 1 Herritarrekin eta eragile adituekin kontrastatzea Eusko Jaurlaritzak 2013-2016ko Etxebizitza Bideratzeko Plan berriaren bidez **abian jarriko dituen etxebizitza politiken printzipio estrategikoak eta jarduteko ildo nagusiak**.
- 2 2013-2016ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren zirriborroan dagoeneko zehaztu diren ekintzak aberasteko eta osatzeko balio dezaketen herritarren **ideia eta proposamen berriak identifikatzea**.

### ERAGINA

Gai honen ikuspegitik, herritarren parte-hartze prozesuko zeregin nagusia Etxebizitza Bideratzeko Planean jasotzen diren ardatz nagusietako gaiak aztertzea izan zen. Bost multzo nagusi bereizi ziren:

1. Alokairua sustatzea.
2. Etxebizitza eskuratzeko bide berriak.
3. Lehentasuneko kolektiboei etxebizitza lortzeko aukera gehiago ematea
4. Eraikitako parkea birgaitzea eta hiriak biziberritzea.
5. Hutsik dauden etxebizitzaren kopurua murriztea.

Gainera, prozesuan parte hartu zuten pertsonen **prozesuari buruz zuten iritzia** galdetu zitzaion.


### PRINTZIPIOAK

Parte-hartze prozesuan zehar oinarritzko printzipio hauek bete ziren: **adierazpen-askatasuna eta gardentasuna**. Ez zen jasotako ekarpenik zentsuratu. Iritzi guztiak izan ziren ongi etorriak eta onargarriak, baldin eta errespetuz eginak izan baziren, ikuspegi ideologikoa alde batera utzita.

Halaber, ahalik eta **gardentasun handienaz** jokatu zen, bai parte-hartze prozesuan zehar jasotako informazioari dagokionez, bai 2013-2016ko Etxebizitza Bideratzeko Plan berrian jasotako ekarpenak ebaluatzeari eta islatzeari dagokienez.

# Prozesuaren gaineko ikuspegi orokorra

Prozesuak, oro har, honako egitura izan zuen:



Parte hartzeko prozesuak **lau asteko iraupena** izan zuen: 2013ko urriaren 14an hasi eta azaroaren 8an amaitu zen.

Denbora horretan zehar, herritarrek eta eragile adituek parte hartzeko aukera ezberdinak izan zituzten; Etxebizitza Sailburuordetzak prestatu zituen aukera horiek, **web euskarriak** funtsean, hau da, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak erabiltzen dituen euskarriak. Hona hemen erabilitako euskarriak:

- **Online parte hartzeko plataforma.** Hemen dagoena: <http://etxebizitza.blog.euskadi.net>
- Eusko Jaurlaritzaren **Irekia** plataforman prestatutako eztabaidagunea ( <http://www.irekia.euskadi.net>)
- **Facebook** eta **linkak.** **Etxebideren** webgunean (<http://www.etxebide.euskadi.net>) eta Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren webgunean (<http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net>)

Herritarrekin komunikatzeko mezu elektronikoak erabili ziren. **Emailingak** bidali zitzaizkien Etxebiden etxebizitza publikoa eskuratzeko asmoz izena emanda zeuden pertsoneri eta eragile adituei. Mezu horien bidez prozesuan parte hartzera gonbidatu ziren, eta horretarako, hain zuzen, iritziak emateko eta proposamenak egiteko erabili zitzaizkien plataformetan eta **inkestetan** sartzeko linkak helarazi zitzaizkien.



Online parte hartzeko plataformak (etxebizitza.blog.euskadi.net) **3 elementu nagusi** izan ditu:

- **HITZ EGIN ETA PARTE HARTU** izeneko atala. Hemen **EZTABAIDATZEKO FOROAK** zeuden.
- **EMAN IDEIA BERRIAK** izeneko atala. Honen bidez egin zitezkeen 2013-2016 Etxebizitza Bideratzeko Plan berriaren gaineko ekarpenak.
- **EMAN IRITZIA** izeneko atala. **INKESTAK** jasotzen ziren bertan, herritarrek iritzia eman zezaten.

Herritarrei eta eragile adituei posta elektronikoko bidez bidali zitzaizkien **inkestak** (plataformatik bertatik eskura zitezkeenak), eta gehienek inkestak betetzea erabaki zuten.

**Proposamen** gehienak **lehentasuna zuten gai jakin batzuei** buruz egindako inkestak bidez jaso dira. Izan ere, gai hauek zuten lehentasuna: alokatutako etxebizitza sustatzea, etxebizitzak eskuratzeko eta edukitzeko aukera berriak, behar handiena duten kolektiboetako etxebizitza eskuratzeko lehentasuna ematea, hutsik dauden etxebizitzaren kopurua murriztea, etxebizitzaren birgaitzea eta hirien berritzea sustatzea, eta herritarrek etxebizitza politiketan parte hartzea.

Parte hartzeko prozesu osoan zehar egon da erabilgarri etxebizitzari buruzko informazioa zuen atal bat; horrela, parte hartu nahi zuten pertsonak informazioa bila zezaketen proposamen zehatzak egin baino lehen.



### 1) PARTE-HARTZEA

Urriaren 14tik azaroaren 8ra bitartean, herritarrek etxebizitzako politika publikoaren ildo nagusien gainean eztabaidatu ahal izan zuten, ildo horiei buruzko iritziak eman ahal izan zituzten, eta ideia berriak eman edo ekarpenak egin ahal izan zituzten.

### 2) IRITZIEN ETA PROPOSAMENEN AZTERKETA ETA INTEGRAZIOA

Azaroaren 8tik 15era bitartean parte hartzeko prozesua ebaluatu zen, eta herritarrek eta eragile adituek egindako proposamenak aztertu ziren. Era berean, 2013-2016 Etxebizitza Bideratzeko Plan berrian sartu behar ziren ere baloratu zen.

### 3) PROZESUAREN EBALUAZIOA

Herritarrei eta eragile adituei bidali zitzaizkien inkesten azken zatian galdera batzuk zeuden, herritarrek etxebizitza politiketan zuten parte-hartzeari eta parte hartzeko prozesuari berari buruzkoak denak. Horri esker, prozesuan parte hartu duten pertsonen gogobetetasuna aztertu ahal izan da.

### 4) GIZARTEARI EMAITZEN BERRI EMATEA

Parte hartzeko prozesuan zehar joan dira parte-hartzearen online plataforman argitaratzen (<http://etxebizitza.blog.euskadi.net>) herritarrei eta eragileei egindako inkesten emaitzak.

Eta parte-hartze prozesuari amaiera emateko, Parte-hartzearen gaineko Memoriaren bidez emango zaizkio gizarteari haren emaitzen berri.





## PARTE HARTZEKO ELEMENTUAK

Parte hartzeko 14.483 elementu izan dira guztira, eta banaketa hau izan dute:

- 6.590 inkesta bete dira, herritarrek 6.495 eta eragile adituak 95.
- 7.824 proposamen jaso dira, 7.615 herritarrenak eta 209 eragile adituena.
- Prozesuak izan duen plataforman jasotako "Hitz egin eta parte hartu" ataleko foro irekien bidez 62 iruzkin jaso dira.
- "Eman ideia berriak" atalean 17 post jaso dira.
- Irekia-n 7 iruzkin jaso dira.

Gainera, online plataformak 7.400 bisita izan ditu; 5.759 bisitari eta 157.70 orrialde ikusita.

## PARTAIDEAK

Ezin dugu zehatz jakin zenbat pertsonak parte hartu duten; baina herritarrentzako lehenengo inkesta 3.224 pertsonak bete zutela eta eragile adituak 95 bete zituztela kontuan hartuta, **prozesuan 4.000 eta 5.000 pertsona inguruk parte hartu dutela** zenbatetsi dezakegu.

<b>ERANTZUN DIREN INKESTAK</b>	
Herritarrentzako 1. inkesta: 2013ko urriaren 14-22 bitartean	3.224
Herritarrentzako 2. inkesta: 2013ko urriaren 24-31 bitartean	2.374
Herritarrentzako 3. inkesta: 2013ko urriaren 31tik azaroaren 8ra	897
Adituentzako inkesta: 2013ko urriaren 24tik azaroaren 8ra	95
<b>Guztira</b>	<b>6.590</b>
<b>PROPOSAMENAK (inkesten bidez egindakoak)</b>	
Herritarrak	7.598
Eragile adituak	209
<b>Guztira</b>	<b>7.807</b>
<b>ONLINE PLATAFORMARAKO SARRERAK</b>	
Bisitariak	7.400
Bisitariak	5.759
<b>HITZ EGIN ETA PARTE HARTU (foroak)</b>	
Jasotako iruzkinak, guztira	62
<b>EMAN IDEIA BERRIAK (proposamenak)</b>	
Jasotako postak, guztira	17
<b>IREKIA</b>	
Iruzkinak	7




**JASOTAKO PROPOSAMEN GUZTIAK**

**Guztira 7.824 proposamen** jaso dira; herritarrek 7.615 proposamen egin dituzte eta eragile adituek 209.

**PROPOSAMENEN LEHEN AZTERKETA-PROZESUA**

Bai herritarrek bai eragile adituek egindako proposamenen lehenengo azterketa egiteko prozesuak bi fase izan ditu:

- 1. FASEA- BALIOZKOTZEA: Proposamen moduan aurkeztu arren benetan proposamenak ez direnak kentzea, eta iritzi, iruzkin eta abar gisa katalogatzea.
- 2. FASEA- INTEGRAZIOA: Proposamen berdinak multzokatzea. Horrela, proposamen ezberdinekin behin betiko zerrenda bat osatuko da eta Etxebizitza Bideratzeko Plana idatzi duen taldeak zerrenda hau aztertuko du.



### PROZESUAREN GAINEKO GOGOBETETASUNA

Herritarrek **parte-hartze prozesu** honi buruz egindako balorazioak **nota oso altua izan du**; inkesta bete duten pertsonen %87k eman diote balorazio ona prozesuari.

**Gehien baloratu den alderdia iritziak emateko askatasuna** izan da (%87aren ustez ona izan da), eta ondoren, parte hartzeko plataforma erraza eta argia izatea (%80) eta emandako informazioa gardena izatea (%73).

**Parte hartzeko bitarteko** guztiei(foroa, proposamenak, inkestak eta dokumentu interesgarriak) **eman zaie balorazio altua**, baina “Eman ideia berriak” atalak izan du baloraziorik onena (%78).

### PROZESU HONEN GAINEKO AURREIKUSPENAK

Alabaina, **prozesuak** 2013-2016ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren behin betiko idazketan **eragin eskasa** izango duela uste da. Herritar gehienek uste dute parte hartzeko prozesu honetan eman diren iritziak eta proposamenak eragin eskasa izango dutela Etxebizitza Bideratzeko Plan berriaren behin betiko idazketan, edo ez dutela batere eraginik izango (%75).

**Eszeptizismo hori ez da soilik prozesu honetan eman.** Herritarren parte-hartzeak erabaki publikoak hartzean izan dezakeen eraginari dagokionez, soilik %27k uste dute eragin hori badagoela; %74k, ordea, uste dute ez duela inolako eraginik.

**Baina eszeptizismo hori gorabehera, herritarren %95ek uste dute prozesu-mota horiek mantendu egin behar direla;** eta nabarmentzekoa da beste datu hau: %53k uste dute etengabe egon behar direla horrelako prozesuak.

3. eranskinean zehazten dira emaitzak.

Herritarrek eta eragile adituek emandako iritziak, oro har, bat zetozen Planaren zirriborroan jasotako orientazio estrategikoekin. Izan ere, orientazio horiek indartu zituzten hurrengo alderdietan:

- **Alokairuaren bultzada irmoa.**
- **Etxebizitza eskuratzeko bide berriak** identifikatzen eta ezartzen jarraitu beharra.
- **Gizarte-arazo larrienak dituzten kolektiboek etxebizitza eskuratzeko lehentasuna ematea.**
- **Eraikitako parkearen birgaitzeak eta gizarte-egoera ahulean dauden aldean berritzeak** etxebizitza politikaren barruan izan behar duten garrantzia azpimarratzea, **esku-hartze soziala ere kontuan hartuta.**
- **Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko lanean jarraitzea, etxebizitza hutsen kopuru handia egotea dakarten arazoak desagertzeko beharrezkoak diren baliabideak garatzea.**

Proposatutako gaiak emandako erantzun handia funtsezkoa izan da Planean jasotako ardatz eta neurri desberdinei lehentasuna emateko.



Etxebizitza Bideratzeko Plana idatzi duen taldeak aurkeztu diren proposamenak baloratu ditu, eta 3 egoera bereizi ditu:

■ Parte hartzeko prozesua baino lehen zirriborroan sartuta ez zeuden baina planean sartu nahi diren proposamenak. Proposamen hauek parte hartzeko prozesuaren ondoriozko "integrazio garbiak" dira.

■ Zirriborroan jasotzen ziren proposamenak, zirriborroa bera indartzen dutenak.

■ Arrazoi ezberdinak direla medio onartu ez diren proposamenak:

- Legegintzako eskumenik ez izatea (adibidez, alokairuaren arautzea).
- Gutxiengo baten iritzia izatea.
- Beste arrazoi batzuk (adibidez, aurrekontuak horretarako aukera ematea).

Azterketa egin ostean **ikusten da herritarren eta eragileen 357 proposamen planean jasoko direla; horietatik 132 parte hartzeko prozesuaren ondoriozko "integrazio garbiak" dira eta 225 proposamen bat datoz plana baino lehen idatzitako zirriborroan jasotakoekin. Beraz, herritarren 357 proposamen (%73) sartuko dira planean.**

PLANA IDATZI DUEN TALDEAK BALORATU DITUEN PROPOSAMENAK 492

PARTE HARTZEKO  
PROZESUA BAINO  
LEHEN  
ZIRRIBORROAN  
SARTUTA **EZ** ZEUDEN  
BAINA PLANEAN  
SARTU NAHI DIREN  
PROPOSAMENAK

132 (%27)

PARTE HARTZEKO  
PROZESUA BAINO  
LEHEN  
ZIRRIBORROAN  
SARTUTA  
**ZEUDEN** PLANEAN  
SARTZEKO  
PROPOSAMENAK

225 (%46)

PROPOSAMENAK  
ONARTU EZ DIRENAK

135 (%27)

PLANEAN JASOTAKO PROPOSAMEN GUZTIAK

357 (%73)

---

**Azkenik, 2013-2016ko Etxebizitza Bideratzeko Planean sartuko dira parte hartzeko prozesua baino lehen sartu behar ez ziren hurrengo 7 ekintzak:**

- Parte hartzeko prozesua baino lehen zirriborroan sartuta ez zeuden baina planean sartu nahi diren proposamenak. Proposamen hauek parte hartzeko prozesuaren ondoriozko "integrazio garbiak" dira.
- 2013-2016 EBPea BPEtarako alderantzizko hipoteka ezartzeko aukerarik dagoen aztertzea. Alderantzizko hipoteka 65 urtetik gorako pertsonentzat eta menpeko pertsonentzat berariaz diseinatu den finantza-eragiketa bat da, eta horren bidez haien etxebizitzaren jabetza edukitzeak dakarren ondare-balioa diru bilaka daiteke titulartasuna galdu gabe. (3. ardatz estrategikoa, 3.2. jardun-ildo, 4. jarduna.)
- Herritarrek parte hartzeko prozesuen bidez BPEak diseinatzeko aukera aztertzea. BOEak diseinatzeko ordenantzak aztertzea eta kanpoko eragileei horren gainean galdetzea ordenantzak alda daitezten. (3. ardatz estrategikoa, 3.1. jardun-ildo, 4. jarduna.)
- EAEko BPEen parkean hiriko, merkataritzako eta enpresetako *masoveriari* buruzko jardun-ildo berria sartu daitekeen zehatz aztertzea. Pertsona jakin batzuei, berritu dituzten etxebizitzetan edo lokaletan denbora jakin batean zehar bizitzaren truke, hiriko nahiz merkataritzako eta enpresetako *masoveria* ezar dakiekeen aztertzea. (4. ardatz estrategikoa, 4.3. jardun-ildo, 8. jarduna.)
- Etxebizitzak birgaitzeari lotuta dauden enplegua bultzatzeko bide berriak aztertzea eta garatzea: langabetuei birgaitzeari, bere kabuz eraikitzeari, irisgarritasunari eta menpekotasunari... buruzko prestakuntza eman dakiekeen aztertzea, enplegarritasunerako metodologia moduan. Langabetuei birgaitzeari lotutako prestakuntza ematea jasotzen duen programa pilotu bat egiteko aukera aztertzea. (4. ardatz estrategikoa, 4.4. jardun-ildo, 1. jarduna.)
- BPEk esleitzeko irizpideen gainean hausnarketa egitea eta irizpide horiek berrikustea. Alokatzeko baremazioan lehenetsia izan behar duten kolektibo berriak aztertzea, eta baremazioa salerosketan ere ezartzeko aukera aztertzea. (2. ardatz estrategikoa, 2.1. jardun-ildo, 3. jarduna.)
- Etxebizitza Sailburuordetzak garatzen dituen zerbitzuen eta jardunen argitalpena eta hedapena garatzea eta ezartzea, komunikazio-kanpainen bidez edo Zerbitzu Gutunak eginez... (6. ardatz estrategikoa, 6.3. jardun-ildo, 3. jarduna)
- Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua hobeto kudeatzeari buruzko azterketa sakona egitea. Etxebideteren kudeaketa aztertzea, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan egindako izapideak arintzeko. Eta horretarako, lan azkarragoa eta gardenagoa egin beharra azpimarratzea. (2. ardatz estrategikoa, 2.1. jardun-ildo, 5. jarduna.)

### BARNE-BALORAZIOA

Hauek dira baloraziorako elementu nagusiak:

- 1 Parte hartzeko prozesu honen bidez lortu den **partaidetza handia** izan da.
- 2 Euskal gizarteak prozesu honen bidez erakutsi du **etxebizitzari buruzko ezagutza ertainak-altuak dituela** eta **badakiela zein diren etxebizitzako politika publiko bat zehazteko eta kudeatzeko zailtasunak**.
- 3 **Errespetu-maila oso handia izan da**. Adierazitako iruzkinen %1 baino gutxiago ezabatu dira, irainak zituztelako edo iritzi laidogarriak eta/edo xenofoboak zituztelako.
- 4 Prozesuan parte hartu duten pertsona gehienek gogobetetasuna **ona izan da**, eta gehiengoak adierazi du mota honetako prozesuak egiten jarraitu beharko litzatekeela. Hala ere, prozesu horien erabilgarritasunari dagokionez eszeptizismoa handia izan da.
- 5 Emaitzak onak izan dira, eta mota honetako ekimenak etengabe bultzatzera eta ezartzera bultzatzen gaituzte. Prozesua martxan egon den denbora laburrean zehar proposamen interesgarriak jaso dira, bai kopuru bai kalitate aldetik. Baliozko 5.939 proposamen jaso dira; horiek 492 proposamen ezberdinetan multzokatu dira eta azken hauek aztertu ostean **%73 jaso dira 2013-2016ko Etxebizitza Bideratzeko Plan berriaren behin betiko idazketan**.

### ETORKIZUNERAKO IRAKASPENAK.

2 irakaspen argi daudela uste dugu:

- 1 Parte-hartzea ez da erraza. Gure gizarteari zail egiten zaio “jendaurrean hitz egitea”, internet bidez bada ere. Horrenbestez, **oso garrantzitsua da gizartearekin komunikatzeko eta harengana hurbiltzeko estrategia bat izatea parte-hartze handiagoa izan dezan**. Horretarako agian baliabide ekonomikoak eta dedikazioa behar diren arren, ezinbestean erabili behar dira.
- 2 **Administrazioak informazio argiagoa eta gardenagoa ematea nahi du euskal gizarteak**, eta ondorioz, mota honetako prozesuek denboran zehar jarraipena izan behar dute. Administrazioak gizartearen konfiantza lortu behar du, lagun diezaion nahi badu.